

# KANALAK

Beste ikuspuntu garrantzitsu bat kanalak dira. Honetan enpresak komunikabideetan eta segmentu-merkatuei bere balorezko proposamena helarazten dizkie, hau da, beraien produktuak beraien bezeroei zabaltzen dizkie zenbait modu erabiliz, webgunek adibidez.

Gure enpresaren kanal motaren inguruan, propioa izango da, hots, metodo fisiko edo immaterial bat erabiliko dugu. Hori dela eta, takilak bezeroengana iristeko, gutun edo eskutitz bat bidaliko dugu udaletxe desberdinetara, bezeroekin harremanetan jartzen hasi eta gure produktuaz jakin dezaten. Gure proiektua gustuko badute, beraiekin ordu bat finkatuko dugu elkartzeko eta aurrez-aurre hitz egingo diegu, segurtasuna eta konfiantza adierazteko. Horretaz gain, telefono bidez komunikatzeko aukera ere eskainiko diegu.

Gure lehen eskutitzak Gipuzkoako udaletxeei bidaliko dizkiegu, nola erantzuten duten jakiteko eta erantzuna positiboa bada beste probintzietara zabalduko dugu gure ideia, baina hasiera batean Euskal Herri mailan zabalduko dugu.

Web-orri propio bat ere egingo dugu; bertatik gure bezeroek, takila pertsonalizatu ahal izango dute, nahi duten takila kopurua, tamaina eta kolorea erakusten duen marrazki prototipoa jarriko da automatikoki. Horrela takila erosi aurretik aurreikusiko dute eta jakingo dute ea zein izango litzatekeen, takilen kopuru, tamaina eta kolore egokiena.

Gaur egun ikusi dezakegu sare sozialek gizartean sekulako inpaktua daukatela eta argi dago jendeak arrazoi desberdinegatik erabiltzen dituztela. Horregatik, pentsatu dugu aukera ona izango litzatekeela gure produktuen publizitatea egitea zenbait sare sozialetan esaterako, Instagram-ean. Hau egitearen arrazoia zera da: nahiz eta gure bezero potentzialak udalak izan, beste zenbait enpresa pribatuk gure produktuaren berri jakin dezaten, ondoren horiei saltzeko aukera izateko, alegia, bezero kantitatea handitzea, gure irabaziak gero eta handiagoak bihurtzeko. Enpresa pribatu hauetan takilak beraiek esandako tokian kokatuko dira (kanpoan edo barruan), are eta erosoagoa bilakatzeko beraientzat.